



MIÑOIEN BURUZAGIA ERAIL DUTE!

ARIKETA-ORRIA

BATXILERGOKO 2. MAILA (ESPAINIAKO HISTORIA)



CENTRO MEMORIAL DE LAS
VÍCTIMAS DEL TERRORISMO
TERRORISMOAREN BIKTIMEN
OROIMENERAKO ZENTROA

HELBURUAK

- + Gure herrialdean dauden polizia-kidegoak ezagutzea eta identifikatzea.
- + Espainian jardun duten erakunde terroristen jarduera krudela aztertzea, haien jatorria, praktikak eta jarduera-aldiak bereiziz.
- + Estatuko erakundeek eta herritarrek berek terroreari eman dioten erantzuna baloratzea, zeinaren bidez zuzenbide-estatua sendotu duten.
- + Terrorismoaren biktimen testigantzak errespetuz entzutea, haien sufrimendura enpatiaz hurbiltzeko eta haien jokabide eredugarria aitortzeko.

GAITASUNAK

- + Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna; izan ere, ezinbestekoa izango zaizu jarduera egiteko, bai ulermenezko irakurketa, baita laburbiltzeko eta ahozko adierazpen ego-kiarekin aurkezteko gaitasuna ere.
- + Gaitasun digitala, gailu mugikorren bidez kontsultatu ahal izango baituzu eta iradokitako jarduera osatzeko beharrezkoa den informazioa bilatu ahal izango baituzu.
- + Gaitasun sozial eta zibikoa; izan ere, biktimaren lekuan jarri beharko duzu hari egindako bidegabekeria ulertu ahal izateko, haren minarekin bat egiteko eta bizikidetza baketsuaren alde egiteko.

DENBORALIZAZIOA

Jarduera hau 45/50 minutuko modulu baterako pentsatuta dago.

BALIABIDEAK

Iradokitako jarduerarekin inprimatutako materiala, boligrafoak, orri zuriak eta smartphoneak edo tabletak bezalako gailu mugikorrak erabiltzeko aukera.

EGILEA

Jesús Prieto



**Terrorismoa:
“Borrokalaria ez diren pertsonen aurka erabiltzen den indarkeria klandestinoa, indarkeria egiten dutenen helburu politikoen aldeko beldur giroa sortzeko, edo gobernu baten edo nazioarteko erakunde baten erabaki bat behartzeko”.**

Juan Avilés Farré

MIÑOIEN BURUZAGIA

ERAIL DUTE!

Jesús Velasco Zuazola komandanteak 47 urte zituen, ezkontuta zegoen eta lau alaba zituen. Ia zazpi urte zeramatzan Arabako Miñoien (lurraldeko foru-polizia) buru. Vidas rotas liburuan jasotzen den bezala: "...1980ko urtarrilaren 10ean Velasco komandanteak Ursulinetako eskolara eraman zituen bere alabak, bertan ikasten baitzuten. Gero, Ford Fiesta batean, Aldundirantz abiatu zen, bulegoa zuen lekura. Ramiro de Maeztu kalean, semaforo gorri baten aurrean gelditu zen, eta, une horretan, lau pertsona zeramatzan taxi bat jarri zitzaion parean. Taxian zihoazen bi pertsona jaitsi, eta haietako batek komandanteak gidatzen zuen autoaren kontra hainbat tiro-sorta egin zituen. Balek aurreko beira zeharkatu, eta hiltzorian utzi zuten militarra"¹. Hirian bolobolo zabaldu zen albistea: "Miñoien buruzagia erail dute!". Familia minak jota geratu zen, baina, hala ere, Jesús Velascoren alargunak, Ana María Vidal-Abarcak, bizitzari aurre egin zion, eta bere alabak aitarenganako maitasunean hezten jakin zuen, beti aldarrikatu zuen justizia, baina inoiz ez gorrotoa edo mendekua.



Ana María Vidal-Abarca. Velasco Vidal-Abarca familia.



Jesús Velasco galako uniformean, Arabako Miñoien buru gisa. Velasco Vidal-Abarca familia.

2015ean hil zen emakume ausart hark sortu eta zuzendu zuen Terrorismoaren Biktimen Elkarte (AVT). Elkarte horrek ehunka kalteturi ahotsa eman eta lagundu zien, oso gutxi kasu egiten zieten garaian. 32 urte igaro behar izan ziren 2012an, Javier de Andrés ahaldu nagusia zela, Gasteizen Jesús Velasco komandanteari omenaldia antolatzeke. Horren harira, Ana Mariak, bere alargunak, honela erantzun zion kazetari baten galderari, alegia terrorismoaren biktimek zergatik ez zuten indarkeriaz erantzun: "Oso arrazoi simple batengatik, pertsona onak garelako. Batzuetan galdetzen zidaten ea heriotza-zigorraren alde nengoen, eta beti esan dut ezetz bizitza errespetatzen dudalako, baita kriminal handienarena ere"².

Hernanin, 2008ra arte, herriko parkeetako batek José Manuel Aristimuño izena eraman zuen, Arabako miñoien komandante burua hil zuen ETAko Araba taldeko kide baten omenez. Egoera hori hainbat urtez luzatu zen, eta horrek gure gizartearen zati handi bati eragin zion gaixotasun moralaren tamaina adieraz dezake.

1 Alonso, R., Domínguez Iribarren, F. eta García Rey, M., 2010. *Vidas rotas*, 256-259 orr..

2 *El País*, 11-1-2012.

IRADOKITAKO JARDUERA

Aurreko testua irakurri ondoren, talde-lan bat eskatuko dizugu, non dinamizatzaileren laguntza eta gaitasun teknologiko eta digitalaren garapena erabakigarriak izango diren.

1

Ziurrenik, ez zaizkizu ezagunak egingo "miñoi" edo "Diputatu Nagusi" bezalako hitzak. Horregatik, teknologia berriekiko nolabaiteko ezagutza duzula erakutsiz, Interneten barrena ibiltzeko eskatuko dizugu, Euskal Foru Araubideari eta "miñoiak", Ertzaintza, "Batzar Nagusiak" edo "Diputatu Nagusia" bezalako figurei buruzko informazioa biltzeko asmoz.

2

Ziur asko, Jesús Velasco Zuazola komandantearen hilketaren kontakizunak hunkitu egin zaitu; baita haren emazteak eta alabek atentatuaren ondoren eta ondorengo urteetan erakutsitako sendotasunak ere. Bilatu Interneten atentatuaren datuak, testuinguru historikoa, egile materialak, egile horien azken urteotako ibilbidea, ezarri zizkieten zigorrak, etab.

3

Ana María Vidal-Abarca komandantearen alargunaren bizitzaren historia eredugarria izan daiteke. Hildako senarraren oroimena aldarrikatzeko eta beste biktima askori laguntzeko egindako borrokaren azterketa kritikoa oso aberasgarria izan daiteke. Zer idatz dezakezu emakume honen ibilbideaz? Nola baloratzen duzu haren borroka Hernaniko parke batetik bere senarraren hiltzailearen omenezko plaka kentzeko? Emakume ausart honi buruz zerbait gehiago jakin dezakezu bideo hau ikusiz: https://www.youtube.com/watch?v=JARbxryl_1o

Talde-lana dokumentatzeko, honako webgune hauetan sar zaitetzke, zehazki, haien dokumentu-zentroetan:

AROVITE, Archivo Online de Violencia Terrorista en Euskadi (Indarkeria Terroristaren Online Artxiboa Euskadin), <http://www.arovite.com/es/>

CMVT, Centro Memorial de las Víctimas del Terrorismo (Terrorismoaren Biktimen Oroimenerako Zentroa), <http://www.memorialvt.com/>

Fernando Buesa Fundazioaren dokumentu-zentroa, <http://fundacionfernandobuesa.com/web/centro-documental/>

Terrorismoaren Biktimen Kolektiboa den COVITERen beldurraren mapa, <http://mapadelterror.com/>

FVT, Fundación Víctimas del Terrorismo (Terrorismoaren Biktimen Fundazioa), <http://fundacionvt.org/>

AVTren (Terrorismoaren Biktimen Elkarrearen) Youtube kanala, <https://www.youtube.com/user/avt>

4

Azkenik, talde bakoitzaren gogoetak parteka daitezke. Komenigarria litzateke talde bakoitzaren oharrak dinamizatzaileri eman ahal izatea, gero Memorialak erabil ditzan.